BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

4898

EBAZPENA, 2008ko martxoaren 31koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresari ingurumen-baimen bateratua ematen diona, Lantarongo (Araba) udalerrian fenol-erretxinak fabrika ditzan.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 22an, Michael Bergmann jaunak, Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Lantarongo (Araba) udalerrian fenol-erretxinak fabrikatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera, proiektuak Lantarongo hirigintza-planarekiko duen bateragarritasunari buruzko udal-txostena eta ondorengo agiri teknikoak aurkeztu zituen:

– Oinarrizko proiektua (2006ko abendua).

– Laburpen ez-teknikoa (2006ko abendua).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresak, besteak beste, jarduerarako baimena zuen, 2003ko irailaren 19koa. Baimen hori galdaketaren bidez harea estaltzeko jarduerarako eman zitzaion. Halaber, enpresa sustatzaileak ibilgura isurtzeko baimena zuen, 2003ko irailaren 25ekoa, urak biltzeko baimena, 1979ko abenduaren 27koa, hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena, 2004ko otsailaren 10ekoa eta 2006ko martxoaren 8koa, hurrenez hurren, eta ondorengo handitzeak eta berrikuntzak egiteko baimenak ere, indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraituz.

2007ko urtarrilaren 25ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran eskuhartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, ingurumen organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki, Lantarongo Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Ebroko Ur Konfederazioari kontsultatu zien.

Ingurumen organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari 2007ko martxoaren 15ean eta irailaren 28an; espedientea 2007ko azaroaren 7an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresak sustatutako proiektua egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 28an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Lantarongo Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Ebroko Ur Konfederazioari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko martxoaren 5ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta –lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena, ibilgura isurtzeko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena.

Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege

Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Lantarongo Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak. Bereziki aintzat hartu da Europako Batzordearen BREF agiri hauen edukia: polimeroei buruzko «Reference Document on Best Available Techniques in the Production of Polymers», 2007ko abuztukoa; oinarrizko organikoari buruzko «Reference Document on Best Available Techniques in the Production of Polymers», 2003ko otsailekoa; monitorizazioari buruzko «Reference Document on Best Available Techniques on the General Principles of Monitoring», 2003ko uztailekoa; biltegiratzeetatik sortutako isurtzeei buruzko «Reference Document on Best Available Techniques on Emissions from Storage», 2006ko uztailekoa; sektore kimikoaren lerro-bukaerari buruzko «Common waste water and waste gas treatment and management systems in the chemical sector», 2003ko otsailekoa; eta hozteari buruzko «Cooling Systems», 2001eko abendukoa.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen proposamena sinatu eta Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko martxoaren 5ean emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplika daitekeen gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Hernaniko (Gipuzkoa) udalerriko Nafarroako errepidea – Epele 39. zenbakian helbide soziala eta IFK: A20026753 zenbakia duen Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, fenol-erretxina likidoak (erresolak) fabrikatzeko jarduerarako, Lantarongo (Araba) udalerrian eta ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Era berean, Ingurumeneko Baimen Bateratu hau eman da, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 19. artikuluaren arabera, Arroko Erakundeak landu beharreko txostenaren emaitzei kalterik egin gabe.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 4.1.b kategorian sartuta dago, «Baseko produktu organikoak fabrikatzeko instalazio kimikoak: hidrokarburo oxigenatuak, adibidez, alkoholak, aldehidoak, zetonak, azido organikoak, esterrak, azetatoak, eterrak, peroxidoak, erretxinak, epoxidoak» izenekoan.

Jarduera Lantarongo industrialdean kokatzen da, mendebaldetik Ebro ibaiarekin mugakide den 45.200 m2-ko lursail batean (7.362 m2 eraikita daude).

Gaur egun, produkzio-lerro bakarra dago eta bi prozesutan banatzen da: fenol-erretxina likidoak edo erresolak fabrikatzea eta aurreko prozesuan erabiltzen den formaldehidoa fabrikatzea. Formaldehidoa ez da merkaturatzen, eta ondorio guztietarako erdibideko produktua da. Fenol-erretxinen (erresolak) urteko produkzioa 23.000 tona inguru da.

Formaldehidoa fabrikatzeko, metanola formaldehidoa fabrikatzeko instalaziora ponpatzen da, eta bertan, birziklatutako aire eta gasekin nahasten da. Lurrunaren bidez berotutako nahasketa ohantze finkoko erreaktore katalitiko batera iristen da. Bertako tenperatura olio termikoaren bidez kontrolatzen da. Sortzen den formol-gasa, hoztu ondoren uretan disolbatzen da xurgapen-dorre batean, % 50eko formaldehidoa erdietsi arte.

Erretxina fabrikatzeko, lehengai desberdinak, bereziki alkohola (esaterako: fenola), aldehidoa (esaterako: formaldehidoa) eta katalizatzailea (esaterako: sodio hidroxidoa) erreaktore batean kargatzen dira, hodi-sistema baten bidez. Lehengaiak kontaktuan jartzen diren unean bertan, polimerizazio-prozesu exotermikoa abiatzen da alkohol– eta aldehido-molekulen artean eta horren ondorioz, ura sortzen da. Normalean, sortutako ura erretxinatik ezabatu behar da; beraz, polimerizazio-erreakzioaren ostean, 2 etapatan gauzatzen den destilazioa dago: presio atmosferikoari dagokiona eta hutsean gauzatzen dena.

Destilazioa bukatu ondoren eta beharrezkoa izanez gero disolbatzailea gehitu ondoren, erretxinak biltegiratzeko andeletara ponpatzen dira, aldez aurretik solido-hondarrak ezabatze aldera iragazi ondoren.

Erretxina-mota berezi baten kasuan, destilazioa bukatu ondoren, hozte azkarraren bidez erretilu baten solidotu egiten dira. Ondoren, birrindu eta zakutan paketatzen dira.

Erresolen produkzioa etena da: lehengaiak kargatzea, erreakzioa fasetan, produktua deskargatzea eta garbiketa. Beraz, prozesuei lotutako isurtzeak irregularrak izaten dira. Erresolak fabrikatzeko prozesuan zehar, atmosferara fenol, formaldehido eta disolbatzaile kopuru txikiak isur daitezke. Aitzitik, formaldehidoa fabrikatzeko prozesua jarraitua da. Hala ere, denboran barrena isurtzeak alda daitezke, katalizatzailearen egoerak markatutako prozesuaren eraginkortasunaren arabera.

2 transformazio-zentro daude, 630 eta 1.000 KVA-koak. Elektrizitatearen kontsumoa 2.907.630 Kwh da. Errekuntza-instalazioei dagokienez, aurretik deskribatutako olio termikoko galdara bat eta 2 lurrun-galdara daude. Galdarak elikatzeko erabilitako erregaia gasolioa da. C gasolioa 25 m3-ko andel batean biltegiratzen da.

Enpresak 7 isurtze-foku ditu. Horietako bat formaldehidoa fabrikatzeko prozesuari lotuta dago (7. fokua). Gainerako fokuak erretxinak fabrikatzeko prozesuari lotuta daude eta honako hauek dira: hainbat erreaktoreren huts-ponpa hezeak (1. eta 3. fokuak), R-2, R-3 eta R-4 erreaktoreen huts-ponpa lehorra (2. fokua). Gainerako hiru fokuak galdarei dagozkie: presio altuko lurrun-galdara (4. fokua), olio termikokoa (5. fokua) eta presio baxuko lurrun-galdara (6. fokua). Azken honek presio altuko galdara matxuratzen denean funtzionatzen du, hilean 24 orduz gutxi gorabehera, eta beraz, foku ez-sistematikoa da. Gasak arazteko sistemei dagokienez, soilik 3. fokuan scrubber bat dago. Formaldehidoa biltegiratzeko andelek scrubber bat dute.

Instalazioan ur-mota desberdinak sortzen dira: ur sanitarioak, hozte-urak eta prozesuko urak. Ur sanitarioak (hobi septikotik pasatu ondoren) eta hozte-urak Ebro ibaira isurtzen dira euri-ur

garbiekin batera. Prozesuko urak, berriz, zuzenean produkzioan berreskuratzen dira edota ondoren berreskuratu daitezen tratatzen dira edo hondakin arriskutsu gisa kudeatzen dira.

Instalazioan sortutako hondakin arriskutsu nagusiak erretxinak fabrikatzearen ondorioz sortutako hondakinak, erretxina likidoak esaterako, eta garbiketa-prozesu nagusian barrena sortutakoak dira, garbiketa-urak eta garbiketako azetona esaterako. Hondakin ez-arriskutsu nagusiak, berriz, geldoak, zura eta txatarra dira.

Aplikatzekoak diren BREF agiriak ondorengoak dira: polimeroei buruzkoa (Draft Referente Document on Best Available Techniques in the Production of Poymers), 2007ko abuztukoa; eta formaldehidoa fabrikatzeko prozesuarentzat oinarrizko organikoari buruzko BREF agiria (Large Volume Organic Chemicals), 2003ko otsailekoa; halaber, monitorizazioari buruzko zeharkako BREF agiriak (Referente Document on Best Available Techniques on the General Principles of Monitoring), biltegiratzearen ondorioz sortutako isurtzeei buruzko teknologia onenei buruzkoa (Draft referente Documento on Best Available techniques on Emissions from Storage), sektore kimikoaren lerro-bukaerari buruzkoa (Common waste water and waste gas treatment and management systems in the chemical sector), eta hozteari buruzkoa (Cooling Systems). Enpresak aplikatzen dituen teknika erabilgarri onenen artean, honako hauek azpimarratzekoak dira: erreakzio exotermikoetan askatutako beroa ur-lurruna sortzeko berreskuratzea, airera egindako isurtzeak minimizatzeko scruber-ak jartzea eta lehengai nagusien dosifikazio automatikoa, besteak beste.

Bigarrena.– Honako baldintzak eta eskakizunak ezartzea, Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresak Lantarongo udalerrian sustatutako fenol-erretxina likidoak fabrikatzeko jarduera ustiatzeko.

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA (Lantaron) enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA (Lantaron) instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura– eta

konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA (Lantaron) enpresaren instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Diametroa (m)	Katalogazioa	
					Taldea	Epigrafea
1	01002482-01	R-2, R-3 eta R4 huts-ponpa hezeak	10	0,16	B	2.6.22
2	01002482-02	R-2, R-3 eta R-4 erreaktoreen huts-ponpa lehorra	4	0,08	B	2.6.22
3	01002482-03	R-1, R-3, R-6 eta R-8 erreaktoreen huts-ponpa hezeak	10	0,11	B	2.6.22
4	01002482-04	Presio altuko lurrun-galdara	7	0,70	C	3.1.1.
5	01002482-05	Olio termikoko galdara	3,5	0,60	C	3.1.1.
6D	01002482-06_D	Presio baxuko lurrun-galdara	11	0,4	Foku ez-sistematikoa	
7	01002482-07	Formol-instalazioa	15	0,4	B	2.6.13.

Instalazioan beste huts-ponpa lehor bat dago, R-8 erreaktoreari lotutakoa, baina ez dabil. Ponpa horrek funtzionatuko balu, erlazionatutako fokua erregularizatzea eskatu beharko da. Horretarako, foku berriak erregularizatzeko «Dauden instalazioetarako Ingurumeneko Baimen Bateratua eskatzeko gidan» jasotako informazioa erantsi beharko da.

Sustatzaileak 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8. fokuen UTM koordenatuak eman beharko ditu.

Sustatzaileak 7 D fokuaren UTM koordenatuak eman beharko ditu.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

Fokuak	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Formaldehidoa, fenola	*20 mg/m^3
	Konposatu Organiko Hegazkorrak (KOH)	150 mg C/Nm^3
2	Formaldehidoa, fenola	*20 mg/m^3
	Konposatu Organiko Hegazkorrak (KOH)	150 mg C/Nm^3
3	Formaldehidoa, fenola	*20 mg/m^3
	Konposatu Organiko Hegazkorrak (KOH)	150 mg C/Nm^3
4	Karbono monoxidoa (CO)	1445 ppm
	Opakutasuna (Bacharach eskala)	2
	NOx nitrogeno oxidoak (NO_2 bezala)	300 ppm
	Sufre dioxidoa (SO_2)	850 mg/Nm
5	Karbono monoxidoa (CO)	1445 ppm
	Opakutasuna (Bacharach eskala)	2
	NOx nitrogeno oxidoak (NO_2 bezala)	300 ppm
	Sufre dioxidoa (SO_2)	850 mg/Nm
7	Formaldehidoa	*20 mg/m^3
	Konposatu Organiko Hegazkorrak (KOH)	150 mg C/Nm^3

* Fluxua 100 g/h > bada.

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

1, 2 eta 3. fokuen korronteak berreskuratu edo tratatzeko proposamena aurkeztu beharko da. 3. fokuaren kasuan, proposamen hau ordezkatzeko aukera izango da, baldin eta funtzionatzeko arazketa-sistema berriaren ondorioz, isurtzeen neurketak ebazpen honetan ezarritako mugen barruan baldin badaude.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei dagokienez (KOG gisa neurtutakoak), ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoak isurtzeko muga-balioak gainditzen ez baditu eta ordubeteko neurketetako batek ere isurtzeko muga-balioak 1,5 faktorea baino kopuru handiagoan gainditzen ez badu.

«Estaldura, berniz, tinta eta itsasgarrien prestatuak fabrikatzea» jarduerarako KOHen isurtzeei dagokienez, goian ezarritako isurtzeko muga-balioak eta isurtze barreiatuen % 3 (disolbatzaileen sarrera-portzentajea) ezingo dira gainditu, edo disolbatzaileen sarrerako % 3aren konposatu organiko hegazkorren guztizko isurtzeko muga-balioa ez da gainditu.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo B.1.1.2. atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Tximiniek, Industria Ministerioaren 1976ko urriaren 18ko Agindua, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoan ezarritako baldintzak beteko dituzte; horrela, besteak beste, laginak hartzeko puntura sarbide seguruak eta errazak jarriko dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziak (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1≥ ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Halaber, neurketa eta irakurketa ofizialak aldez aurretik abisatu gabe egiteko beharrezko gutxienekoak izango dituzte (argindarra eta beste batzuk).

B.1.2.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: fenol-erretxina likidoak (erresolak) fabrikatzea.

Jarduera-taldea: 9.

Mota-taldea-EJSN: 2-9– 24.14.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Ur sanitarioak	Euri-urak Hobi septikoa (langileen komunak)	Ebro ibaiaren ibilgua	Ebro ibaiaren arro hidrografikoa	II	X:499677 Y:4731222
2	Industria-urak eta ur sanitarioak	Erretxinak birsortzeko urak Galdaren purgatzeak Hozte-urak Euri-urak Hobi septikoa (langileen komunak)	Ebro ibaiaren ibilgua	Ebro ibaiaren arro hidrografikoa	II	X:499652 Y:4731138
3	Euri-urak	Euri-urak	Ebro ibaiaren ibilgua	Ebro ibaiaren arro hidrografikoa	II	X:499613 Y:4731046

B.1.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: erabilera sanitarioko urak.

Eguneko batez besteko bolumena	2,15 m^3
Urteko gehienezko bolumena	700 m^3

b) 2. isurketa: industria-urak.

Eguneko batez besteko bolumena	1.100 m^3
Urteko gehienezko bolumena	360.000 m^3

B.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ibilgurako isurketen ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira bakarrik, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin:

a) 1. isurketa: ur sanitarioak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH	5,5 - 9,5
Solido esekiak	<150 mg/l
OEK	<300 mg/l
DBO5	<180 mg/l

b) 2. isurketa: hozte-urak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH	5,5-9,5
OEK	30-125 mg/m^3
Guztizko hidrogenoa (N bezala)	10-15 mg/m^3
Solido esekiak (105 ºC-ra lehortutakoak)	20-30 mg/m^3
Konposatu organiko halogenatuak (AOX)	1 mg/m^3
Merkurioa	0,05 mg/m^3
Kadmioa	0,2 mg/m^3
Kobrea	0,5 mg/m^3
Beruna	0,5 mg/m^3
Nikela	0,5 mg/m^3
Kromoa	0,5 mg/m^3
Zinka	2 mg/m^3
Eztainua	2 mg/m^3
Fenola	1 mg/l
Formaldehidoa	1 mg/l

Tenperatura: 3 ºC-ko igoera beheko ibilguan.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Aitzitik, titularrak kasuan kasu tratamendu egokia egin beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen honek ez du baimentzen baldintza honetan esplizituki adierazitako beste substantzia batzuk isurtzea, bereziki gai arriskutsuak izenekoak badira (Uren abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko, I, IV, V, VI eta VIII. tituluak garatzen dituen Jabari Publikoko Urguneen Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen duen maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen ditu gai horiek).

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Hondakin-urak arazteko instalazioak edo hondakin-uren neurri zuzentzaileak espedientean agertzen den enpresa eskatzaileak aurkeztutako agirietara egokituko dira, eta elementu hauek izango dituzte funtsean:

Hartutako neurriak nahikoa ez direla ikusiz gero, Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA (Lantarón) enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketa instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, kontrolatzeko kutxeta bat jarriko da baimendutako hondakin-ur mota bakoitzerako; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

B.1.2.5.– Isurien kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, honakoa da isurien kontrol-kanona:

(IKK): Isurien Kontrol-kanona = V x Pu.

Pu = Pb x Cm.

Cm = C2 x C3 x C4.

Honela ulertuta:

V = Isurketa baimenduaren bolumena (m<BOPVSuperIndice>3</BOPVSuperIndice>/urte).

Pu = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

Pb = Oinarrizko prezioa m+-ko isurketaren izaeraren arabera.

Cm = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

C2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

C3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

C4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

1. isurketa: langileen komunetatik eratorritako urak:

V: Bolumena: P_b: Hondakin-ura: Industriala C_2: 2. mota C_3: Tratamendu egokia C_4: Kategoria-eremua: II	V = 700 m^3/ urte P_b = 0,03005 euro/m^3 C_2 = 1,09 C_3 = 0,5 C_4 = 1,12

Cm = 1,09 x 0,5 x 1,12 = 0,6104.

Pu = 0,03005 x 0,6104 = 0,01834 euro/m3.

2. isurketa: zirkuitu irekiko hozte-urak:

V: Bolumena: P_b: Hondakin-ura: Industriala C_m: Hozte-urak, 100 Hm^3 baino txikiagoa	V = 360.000 m^3/ urte P_b = 0,03005 euro/m^3 C_m= 0,02

Pu = 0,03005 x 0,02 = 0,000601 euro/m<BOPVSuperIndice>3.</BOPVSuperIndice>

Isurien kontrol-kanona = 700 x 0,01834 + 360.000 x 0,000601 = 229,198 euro urteko.

B.1.3. Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketa saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia– eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Lantarongo Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

• 1. Prozesua: «erretxina likidoak fabrikatzea».

– 1. hondakina: «Erreakzioko eta destilazioko bestelako hondakinak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/1/1.

Hondakinaren kodea: Q8//R2//L5//C41//H3//A669(1)//B5501.

EHZ: 07 07 08.

Urtean sortutako kantitatea: 126 tona.

Destilazioan sortutako ura biltzerakoan sortzen da; butanolaurarekin du.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuan edo lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 2. hondakina: «Destilazio-urak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/1/2.

Hondakinaren kodea: Q5//R12//L34//C39/41//H3b/6//A669(1)//B5501.

EHZ: 07 07 08.

Urtean sortutako kantitatea: 83 tona.

Destilazioan sortutako ura eta destilazio-urak autokudeatzeko prozesuan tratatu ezin den ura biltzerakoan sortzen da; fenola, formaldehidoa eta disolbatzaile ez-halogenatuak (metanola) ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuan edo lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 3. hondakina: «Iragazkiak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/1/3.

Hondakinaren kodea: Q9//D15//S35//C39//H6//A669(1)//B5501.

EHZ: 15 02 02.

Urtean sortutako kantitatea: 2,4 tona.

Erretxina iragazteko erabilitako iragazkiak birjartzerakoan sortzen da; fenol-erretxinez kutsatutako material iragazlea da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 4. hondakina: «Erretxina solidoa».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/1/4.

Hondakinaren kodea: Q5//D15//S13//C39//H6//A669(1)//B5501.

EHZ: 07 07 08.

Urtean sortutako kantitatea: 41,2 tona.

Fenol-erretxina erreaktorean gogortzearen ondorioz sortzen da; fenol-erretxina gogortua da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 5. hondakina: «Erretxina likidoa».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/1/5.

Hondakinaren kodea: Q5//D15//S13//C39//H6//A669(1)//B5501.

EHZ: 07 07 08.

Urtean sortutako kantitatea: 69,9 tona.

Kalitatezko erreus edo/eta fenol-erretxinaren fabrikazio gisa, laborategiko entseguak erretxinekin egiterakoan, formulazio-aldaketaren edo jario eta xukatzeak biltzearen ondorioz erreaktorea garbitzerakoan sortzen da; fenol-erretxina likidoa da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 6. hondakina: «Lehengai zaharkituak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/1/6.

Hondakinaren kodea: Q3//RóD//lóPóS//C//H//A669(1)//B5501.

EHZ: 16 03 05.

Urtean sortutako kantitatea: 15 tona.

Prozesuan erabilitako lehengaiak iraungi edo/eta horien kalitatezko bazterketen ondorioz sortzen da. Konposizio kimikoa lehengaiaren arabera desberdina denez, «C» eta «H» kodeak ez dira hondakinaren identifikazio-kodean identifikatzen. Beraz, sortzeko orduan eta baimendutako kudeatzaileak eraman aurretik beharrezkoak izango dira. Halaber, sortutako hondakinaren izen zehatza eta tratamendu-eragiketei eta hondakinen mota generikoei («RóD» eta «LóPós» gisa adieraziak, hurrenez hurren) dagozkien kodeak zehaztu behar dira. Prozesu honen barruan hondakinaren ordena-zenbakia hondakin-tipologia bakoitzerako desberdina izango da beti.

Jatorrizko ontziak mantentzen dira, eta hondakin horrentzako identifikatu ondoren, hondakinen biltegira eramaten dira.

• 2. Prozesua: «formaldehidoa fabrikatzea».

1. hondakina: «Paraformola».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/2/1.

Hondakinaren kodea: Q5//D13//S20//C51//H6//A669(1)//B5405.

EHZ: 07 07 08.

Urtean sortutako kantitatea: 200 kilogramo.

Instalazioko paraformaldehidoaren isuriak biltzerakoan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 2. hondakina: «Olio termikoa».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/2/2.

Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A669(1)//B5405.

EHZ: 13 02 08.

Urtean sortutako kantitatea: 10 tona, 10-15 urtero.

Berotze-sistemaren olio termikoa birjartzerakoan sortzen da; olio termiko erabilia da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

• 3. Prozesua: «garbiketa».

– 1. hondakina: «Garbiketako urak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/3/1.

Hondakinaren kodea: Q5//D13//L34//C39//H5//A669(1)//B0005.

EHZ: 07 07 01.

Urtean sortutako kantitatea: 96,6 tona.

Erretxina likidoak fabrikatzeko prozesuko erreaktoreak garbitzerakoan eta edukiontziak garbitzerakoan sortzen da; fenola du.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 2. hondakina: «Garbiketa-urak sodarekin».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/3/2.

Hondakinaren kodea: Q5//D13//L34//C39//H5//A669(1)//B0005.

EHZ: 07 07 01.

Urtean sortutako kantitatea: 35 tona.

Erretxina likidoak fabrikatzeko prozesuko erreaktoreak garbitzerakoan eta edukiontziak garbitzerakoan sortzen da; soda eta fenola ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 3. hondakina: «Garbiketako azetona».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/3/3.

Hondakinaren kodea: Q5//R2//L5//C39/41//H3b/6//A669(1)//B0005.

EHZ: 07 07 04.

Urtean sortutako kantitatea: 36 tona.

Erretxina likidoak fabrikatzeko eta formaldehidoa fabrikatzeko prozesuetako erreaktoreak garbitzerakoan sortzen da; azetona eta fenola ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

• 4. Prozesua: «zerbitzu orokorrak».

– 1. hondakina: «Olio erabiliak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/4/1.

Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A669(1)//B0019.

EHZ: 13 02 08.

Urtean sortutako kantitatea: 400 kg.

Makina eta instalazio batzuetan olioa birjartzeko eragiketetan sortzen da Mantentze-lan Orokorrak azpiprozesuan; olio mekaniko erabiliak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 2. hondakina: «Pila agortuak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/4/2.

Hondakinaren kodea:

Q6//R13//S37//C5/11//H6/14//A669(1)//B0019.

EHZ: 20 01 33.

Urtean sortutako kantitatea: Kilogramo bat.

Pila agortuak birjartzeko eragiketetan sortzen da eta horiek multzoka jasotzen dira; nikela eta kadmioa bezalako metalak dituzten pilak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian jasotzen da, sortzen den postuetan.

– 3. hondakina: «Botoi-pilak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/4/3.

Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C16//H6/14//A669(1)//B0019.

EHZ: 16 06 03.

Urtean sortutako kantitatea: 0,2 kilogramo.

Pila agortuak biltzeko eragiketetan sortzen da Mantentze-lan Orokorrak azpiprozesuan; merkurioa duten pila erabiliak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian jasotzen da, sortzen den postuetan.

– 4. hondakina: «Fluoreszenteak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/4/4.

Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H14//A669(1)//B0019.

EHZ: 20 01 21.

Urtean sortutako kantitatea: 100 kilogramo.

Lanparak birjartzeko eragiketetan sortzen da Mantentze-lan Orokorrak azpiprozesuan; merkurioa duten lanpara erabiliak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako kutxa batean jasotzen da, sortzen den postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 5. hondakina: «Tresna elektriko eta elektronikoak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/4/5.

Hondakinaren kodea: Q14//R4//S40//C6/18//H6/14//A669(1)//B0019.

EHZ: 16 02 13.

Urtean sortutako kantitatea: (hondakin puntuala).

Ekipo elektrikoak eta elektronikoak aldatzeko eragiketetan sortzen da; baztertutako ekipo ofimatikoak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako gunean biltzen da.

– 6. hondakina: «Laborategiko erreaktiboak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/4/6.

Hondakinaren kodea: Q7//R13//L14//C23/24/41//H6/3b//A669(1)//B0019.

EHZ: 16 05 06.

Urtean sortutako kantitatea: 300 kilogramo.

Disolbatzaileak, azidoak eta baseak bereziki konposizio eta ezaugarri fisikoen analisietan erabiltzearen ondorioz sortzen da Laborategiko azpiprozesuan; bereziki azidoak, baseak eta disolbatzaileak ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako metalezko bidoi batean jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

• 5. Prozesua: «hondakinak elkartzea».

– 1. hondakina: «Olioa eta erretxina duten xurgatzaileak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/5/1.

Hondakinaren kodea: Q5//D15//S34//C39/51//H6/14//A669(1)//B9711.

EHZ: 15 02 02.

Urtean sortutako kantitatea: 3 tona.

Xurgatzaileak eta Ehunak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan kodetzen dira; olioz eta erretxinaz kutsatutako xurgatzaileak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 2. hondakina: «Trapuak eta paperak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/5/2.

Hondakinaren kodea: Q5//D15//S34//C39/51//H6/14//A669(1)//B9711.

EHZ: 15 02 02.

Urtean sortutako kantitatea: 1,2 tona.

Xurgatzaileak eta Ehunak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan kodetzen dira; olioz eta erretxinaz kutsatutako garbiketako trapuak eta paperak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 3. hondakina: «Metalezko bidoiak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/5/3.

Hondakinaren kodea: Q5//R4//S36//C23/41//H5//A669(1)//B9711.

EHZ: 15 01 10.

Urtean sortutako kantitatea: 22,7 tona.

Ontzi hutsak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan sortzen dira;

substantzia arriskutsuen hondarrak dituzten metalezko ontziak dira, edo horiez kutsatuak; orokorrean, erretxinak, katalizatzaile azidoak eta lehengaiak (alkoholak, aminak, esterrak, konposatu aromatikoak...) eduki dituzte.

Hondakinarentzat identifikatutako toki batean biltzen da hondakinen biltegian.

– 4. hondakina: «Metalezko ontziak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/5/4.

Hondakinaren kodea: Q5//R4//S36//C41//H5//A669(1)//B9711.

EHZ: 15 01 10.

Urtean sortutako kantitatea: 600 kg.

Ontzi hutsak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan sortzen dira; substantzia arriskutsuen hondarrak dituzten metalezko ontziak dira, edo horiez kutsatuak; orokorrean pinturak eta disolbatzaileak eduki dituzte.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean jasotzen da, sortzen den postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 5. hondakina: «Plastikozko ontziak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/5/5.

Hondakinaren kodea: Q5//R3//S36//C39/41//H5//A669(1)//B9711.

EHZ: 150110.

Urtean sortutako kantitatea: 2,9 tona.

Ontzi hutsak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan sortzen dira; substantzia arriskutsuen hondarrak dituzten plastikozko ontziak dira, edo horiez kutsatuak; orokorrean erretxinak eta disolbatzaileak eduki dituzte.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 6. hondakina: «Edukiontzi hutsak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/5/6.

Hondakinaren kodea: Q5//R3//S23/39//C41//H5//A669(1)//B9711.

EHZ: 15 01 10.

Urtean sortutako kantitatea: 19 tona.

Ontzi hutsak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan sortzen dira; substantzia arriskutsuen hondarrak dituzten edukiontziak dira, edo horiez kutsatuak; orokorrean fenol-erretxinak, katalizatzaile azidoak eta lehengaiak (azidoak, baseak, disolbatzaileak, fenola) eduki dituzte.

Hondakinarentzat identifikatutako toki batean biltzen da hondakinen biltegian.

– 7. hondakina: «Paperezko ontziak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/5/7.

Hondakinaren kodea: Q5//D15//S36//C23/24/41//H5//A669(1)//B9711.

EHZ: 15 01 10.

Urtean sortutako kantitatea: 3,6 tona.

Ontzi hutsak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan sortzen dira; substantzia arriskutsuen hondarrak dituzten beirazko ontziak dira, edo horiez kutsatuak; orokorrean azidoak, baseak eta alkoholak eduki dituzte.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 8. hondakina: «Beirazko ontziak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/5/8.

Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C23/24/41//H5//A669(1)//B9711.

EHZ: 15 01 10.

Urtean sortutako kantitatea: 50 kg.

Ontzi hutsak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan sortzen dira; substantzia arriskutsuen hondarrak dituzten beirazko ontziak dira, edo horiez kutsatuak; orokorrean azidoak, baseak eta alkoholak eduki dituzte.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

• 6. Prozesua: «destilazio-uren autokudeaketa».

1. hondakina: «Destilazio-urak».

Identifikazioa: A20026753/0100004525/6/1.

Hondakinaren kodea: Q5//R12//L34//C39/41//H3b/6//A669(1)//B5501.

EHZ: 07 07 08.

Urtean sortutako kantitatea: autokudeatutako uren urteko guztizko bolumena 100 tona ingurukoa da; horietatik % 60 destilazio-urei dagokie eta % 40 garbiketa-urei (iragazki hezearen urak barne).

Erretxinak fabrikatzeko eta destilazio-prozesuan sortutako «destilazio-uren» eta garbiketa-prozesuan sortutako «garbiketa-uren» zati batek (destilatzailearen gaitasunaren arabera), hutsean lurruntzeko tratamendua jasaten du eguneko 1000 litroko gehienezko ahalmena duen ekipo estanko batean. Horrela, prozesuan lurrundutako berrerabilia (sarrera-bolumenaren % 80) eta kontzentratua (sarrera-bolumenaren % 20) sortzen dira, eta tratatutako uren jatorriaren arabera, «destilazio-urak» edo «garbiketa-urak» hondakinarekin batera kudeatzen dira.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakin-kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA (Lantaron) enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Instalazioan sortutako «Destilazio-urak eta garbiketako urak» izeneko hondakina instalazioan bertan kudeatu daiteke, beti ere ekipo estankoan hutsean lurruntzeko tratamenduaren urteko gehienezko ahalmena gainditzen ez bada, hain zuzen ere, eguneko 1000 litro.

i) Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA (Lantaron) enpresak industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

j) Aipatutako ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako terminoetan baimendutako kudeaketa-sistema bateratu bat ezartzen ez den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA (Lantaron) enpresak.

k) Aipatutako irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren arabera, Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA (Lantaron) enpresak, beren ezaugarriak direla-eta olioari dagozkion olio-hondakinen ezaugarri fisiko-kimikoak (aipatutako dekretuak arautzen du olio horren kudeaketa) egiaztatu beharko ditu, azken kudeatzaile baimenduari trata dezan entregatu aurretik. Egiaztapena ez da nahitaezkoa izango, baldin eta Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA (Lantaron) enpresak olio-hondakin horiek Euskal Autonomia Erkidegoko transferentzia-estazio baimendu batean entregatzen baldin baditu, aipatu Dekretuaren 20. artikuluak xedatutakoaren arabera. Kasu horretan, estazio horren titularrak hartuko du bere gain eginbehar hori, olioa azken kudeatzaile baimenduari bidali aurretik.

l) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

m) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA (Lantaron) enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

n) Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA (Lantaron) enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

o) Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA (Lantaron) enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

p) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera– eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

q) Destilazio-uren eta garbiketako uren instalazioan gauzatzen diren dosifikazio– eta tratamendu-eragiketak jasotzen dituen erregistro-liburua izan beharko du, eta liburuan, gutxienez, ondorengo datuak agertu behar dira:

– Kudeatutako hondakinen kantitateak, izaera, konposizioa eta identifikazio-kodea.

– Dosifikazio-maiztasuna eta –maila.

– Tratamendu-eragiketak eta kontrolerako parametroak.

– Tratamenduaren ondoren lortutako hondakinen kantitateak, izaera, konposizioa eta identifikazio-kodea.

– Horien kudeaketa, helmuga identifikatzeko datak eta datuak.

– Hilero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

r) Hondakin arriskutsuen kudeaketaren oinarrizko printzipioetako bat betetze aldera, hau da, hondakin horiek ahalik eta gutxien produzitzeko, Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA (Lantaron) enpresak neurri prebentiboak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan, gutxienez lau urtean behin.

s) Aurreko e eta f (kudeatzaileak EAEn daudenean), o eta p idatz-zatietan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

t) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA (Lantaron) enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu.

Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egitean segurtasun– eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Zura	150301	zerbitzu orokorrak	5,5 tona
Txatarra	200140	zerbitzu orokorrak	4,4 tona
Geldoak	070299	zerbitzu orokorrak	56 tona

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu bati.

b) Hondakin horiek 2 urtez gorde ahal izango dira gehienez.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA (Lantaron) enpresak erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo horien agiri ofizial baliokideak, aginduzkoak direnean, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakin geldo eta geldoarazien kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera– eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aurreko c eta d (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta e ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresak lurzoruaren babesa ziurtatzeko behar diren neurriak hartu beharko ditu, eta bereziki, «kutsatzeko aukera handiak» dituzten puntuak modu zorrotzean zaindu beharko ditu.

Puntu horien inguruneak inolako erasorik jasan duela antzemanez gero, beharrezko analisiak egingo dira eta analisien emaitzak positiboak izanez gero, lurzorua garbitu beharko da. Gainera, «kutsatua» bezala sailkatutako puntu bat identifikatu denez, lurzorua benetan zenbateraino kutsatua dagoen zehazteko analisiak egin beharko dira.

Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresak jarduera garatzen duen lur zatian lurmugimenduak sustatzen baditu, enpresak hondeatu behar dituen materialen karakterizazioa egin beharko du, jardun kutsatzaileen ondorioz erasan diren egiaztatzearren eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa-modu egokiena zehaztearren.

Karakterizazio horretan lortutako emaitzak, material horiek kudeatu aurretik Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, baloratzeko. Ingurumen organoak, ebazpen arrazoitu bidez, lurzoruaren kalitatearen adierazpena egiteko prozedura hastea eskatu ahal izango du kutsadura-zantzurik antzemanez gero, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 17.6 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak hartu eta instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena Zaintzeko Programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea.

a) Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresak botatzen dituen kutsatzaileak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Fokua	Erregistro-liburuan duen izena	Fokuaren izena	Neurketak	Kontrolen maiztasuna
1	01002482-01	R-2, R-3 eta R4 huts-ponpa hezeak	KOG Fenola Formaldehidoa	Urtero BKE batek
2	01002482-02	R-2, R-3 eta R-4 erreaktoreen huts-ponpa lehorra	KOG Fenola Formaldehidoa	Urtero BKE batek
3	01002482-03	R-1, R-3, R-6 eta R-8 erreaktoreen huts-ponpa hezeak	KOG Fenola Formaldehidoa	Urtero BKE batek
4	01002482-04	Presio altuko lurrun-galdara	Errekuntza-gasak (CO, NOx, SO2) eta opakutasuna	Bost urtero, BKE batek
5	01002482-05	Olio termikoko galdara	Errekuntza-gasak (CO, NOx, SO2) eta opakutasuna	Bost urtero, BKE batek
7	01002482-07	Formol-instalazioa	KOG Metanola Formaldehidoa	Hiru urtero, BKE batek
8	01002482-08	R-8 erreaktorearen huts-ponpa lehorra	KOG Fenola Formaldehidoa	Urtero BKE batek

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak baimendutako kontrol erakundea (BKE) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurketa, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «BKEen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, isurtzeen kontrolek eta neurketa-baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

C.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio hori eguneratuta egongo da, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
1	Hobi septikotik datozen ur sanitarioak	pH OEK DBO5 Solido esekiak	Hiru hilero	Kanpoko neurketa, BKE batek egina
2	Industria-urak eta hobi septikoa	pH OEK Guztizko fenolak Formaldehidoa	Hiru hilero	Kanpoko neurketa, BKE batek egina

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea zein ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 255. artikulua) egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametro bakoitzaren gainean egingo dira. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

c) Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Arabako Ordezkaritza).

d) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

e) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.1.2.3 ataleko parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen baditu.

f) Isurketan lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen gai arriskutsuak dauden dioen adierazpen bat igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan produkzio-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

C.3.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lursaileko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamena ebazpen honen C.6. atalak aipatzen duen ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginari gehituko zaio.

C.4.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
Ekoizpena	Fenol-erretxinen guztizko produkzioa	T		T	Urtero
	Formaldehidoaren produkzioa	T		T	Urtero
Materialen kontsumoa	Fenol kantitatea	T	Fenol kantitatea fenol-erretxinen (nobolakak) guztizko produkzioa	T /t	Urtero
	Metanol kantitatea	T	Metanol kantitatea fenol-erretxinen guztizko produkzioa	T/t	Urtero
	Ontzien kontsumoa	T	Ontzien kontsumoa/ fenol-erretxinen guztizko produkzioa	T/t	Urtero
Energiaren kontsumoa	Elektrizitatearen kontsumoa	Kwh	Elektrizitatearen kontsumoa energiaren guztizko kontsumoa	% (kwh/kwh)	Urtero
			Elektrizitatearen kontsumoa fenol-erretxinen guztizko produkzioa	Kwh erretxina tona	Urtero
	Gasolioaren kontsumoa	Kwh	C gasolioaren kontsumoa energiaren guztizko kontsumoa	% (kwh/kwh)	Urtero
			C gasolioaren kontsumoa fenol-erretxinen guztizko produkzioa	Kwh erretxina tona	Urtero
Energiaren kontsumoa	Energiaren guztizko kontsumoa	Kwh	Energiaren guztizko kontsumoa/ fenol-erretxinen guztizko produkzioa	Kwh/t guztizko produktuak	Urtero
Isurtze atmosferikoak	So2 solidoen isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua) / kontrolatutako foku bakoitzeko	Mg/nm^3	So2 isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua) /kontrolatutako foku bakoitzeko	Mg/nm^3	Urtero
	So2-ren guztizko isurtzeak	Kg	So2-ren guztizko isurtzeak	Kg	Urtero
			So2-ren guztizko isurtzeak /fenol-erretxinen guztizko produkzioa	Kg/t	Urtero
	Koh isurtzeak kog gisa (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua) / kontrolatutako foku bakoitzeko	Mg/nm^3	Koh isurtzeak, kog gisa (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua) kontrolatutako foku bakoitzeko	Mg/nm^3	Urtero
	Kog gisa isuritako kohen guztizko kopurua	G	Kog gisa isuritako kohen guztizko kopurua	G	Urtero
			Kog gisa isuritako kohen guztizko kopurua /fenol-erretxinen guztizko produkzioa	G/t	Urtero
	Fenol isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua) / kontrolatutako foku bakoitzeko	Mg/nm^3	Fenol isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua) / kontrolatutako foku bakoitzeko	Mg/nm^3	Urtero
	Fenolen guztizko isurtzeak	G	Fenolen guztizko isurtzeak	G	Urtero
			Fenolen guztizko isurtzeak/fenol-erretxinen guztizko produkzioa	G/t	Urtero
	Formaldehidoen isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua) / kontrolatutako foku bakoitzeko	Mg/nm^3	Formaldehidoen isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua)/ foku kontrolatu bakoitzeko	Mg/nm^3	Urtero
	Formaldehidoaren guztizko isurtzeak	G	Formaldehidoaren guztizko isurtzeak	G	Urtero
			Formaldehidoaren guztizko isurtzeak fenol-erretxinen guztizko produkzioa	G/t	Urtero

	Metanolaren isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua)/ 6. Fokurako	Mg/nm^3	Metanolaren isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua)/ 6. Fokurako	Mg/nm^3	Urtero
	Metanolaren guztizko isurtzeak	G	Metanolaren guztizko isurtzeak	G	Urtero
			Metanolaren guztizko isurtzeak fenol-erretxinen guztizko produkzioa	G/t	Urtero
Uraren kontsumoa	Uraren kontsumoa	m^3	Uraren kontsumoa	m^3	Urtero
			Uraren kontsumoa/ fenol-erretxinen guztizko produkzioa	m^3	Urtero
Uretara egindako isurketak	Industria-isurketak/ kolektorea	m^3	Industria-isurketak kolektorea	m^3	Urtero
	Euri-uren isurketa/kolektorea	m^3	Euri-uren isurketa kolektorea	m^3	Urtero
	Guztizko fenolen kontzentrazioa (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua), 2. Isurketa-punturako	Mg/l	Oek kontzentrazioa	Mg/l	Urtero
	Formaldehidoaren kontzentrazioa (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua), 2. Isurketa-punturako	Mg/l	Solidoen kontzentrazioa	Mg/l	Urtero
Hondakinak	Sortutako hondakin arriskutsuak	T	Hondakin arriskutsu baliotuak sortutako hondakin arriskutsuak	%	Urtero
	Hondakin arriskutsu baliotuak	T			
	Sortutako hondakin arriskutsuak	T	Sortutako hondakin arriskutsuak fenol-erretxinen guztizko produkzioa	T	Urtero
	Polimeroen hondakinak	T	Polimeroen hondakinak/polimeroen guztizko produkzioa	T/t	Urtero
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	T	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak sortutako hondakin ez-arriskutsuak	%	Urtero
Hondakinak	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak	T			
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	T	Sortutako hondakin ez-arriskutsuak fenol-erretxinen guztizko produkzioa	T	Urtero
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	Kopurua urte	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua	Kopurua/urte	Urtero
Iks	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/ez Zein/ urtea	Ekoscan/ urte Eta/edo Iso14001/ urte Eta/edo Emas/ urte	Bai/ez Zein/ urtea	Urtero

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

C.6.– Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanean eta ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz.

Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak edo analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, botako diren kutsagarriak eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (24.1.4 epigrafea), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduerak.

Sustatzaileak aurkeztutako oinarrizko proiektuan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko isuri edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskaritzak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Lehen aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan atmosferaren kutsaduraren prebentzio– eta zuzenketa-sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira (arazketa, minimizazioa, eta abar).

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, erregaiak, gehigarriak, disolbatzaileak, eta orokorrean, fabrikan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

h) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

i) Nabeen barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bidaliko da.

j) Hobi septikoaren sistemak garbitze– eta mantentze-lan egokia izango du errendimendu ona ziurtatzeko. Aldizka enpresa espezializatu batek erretiratuko ditu pilatutako solido eta lohiak, eta garbiketan arrastatutako solidoak ibilgura hustea saihestuko da.

k) Urtean behin instalazio horien garbiketaren eta mantentze-lanen fakturaren kopia bat bidaliko da.

l) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

m) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

n) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, isurtzeko muga-balioak gainditzea eta ustekabeko isuri bat gertatzea), sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

o) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

– Gertakari mota.

– Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

– Iraupena.

– Ustekabeko isuria bada, emaria eta isuritako gaiak.

– Mugak gaindituz gero, isurtzeei buruzko datuak.

– Eragindako kalteen balioespena.

– Hartutako neurri zuzentzaileak.

– Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.

– Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

p) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko E-E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duen apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.1.3 (1, 2, 3 fokuak berreskuratu edo tratatzeko proposamena); B.1.2 (Hozte-urentzako 3.3 formularioa; hondakin-ur sanitarioentzako «Karakterizazio orokorra» 3.4 formularioa (formulario bat kontrol-puntu bakoitzerako); B.1.2.3 (Kontrol-puntu bakoitzaren analisia, formularioetan aurkeztutako datuak oinarri dituzten fluxuak nahastu aurretik); B.1.2.4 («Arazketa-instalazioak» 4. formularioa; arazketa-instalazioen dokumentazio teknikoa); B.1.3.1.e eta B.1.3.2.c (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak onartzeko agiria); B.1.3.1.p eta B.1.3.2.e (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen kontrolerako erregistro-eredua); B.1.4 (lurzorua babesteko neurriak); C.1 (Isurtzeen kontrola); C.1.1 (Isurtze atmosferikoen neurketen erregistro-eredua); C.2 (Kontrolerako kutxetaren UTM koordenatuak); C.3 (Zarata kontrolatzeko proposamena); C.6 (Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina); D.1 (Isurtze eta hondakinen balioespena programatutako geldialdietan); D.3.a, b, c (Mantentze-lanen eskuliburua eta ikuskatzeko eta kontrolatzeko programa); D.3.g (Biltegiratzeko ziurtagirien egiaztapena), D.3.h (Larrialdi-kasuetarako eskuragarri dauden materialen zerrenda); D.3.i (Kubetak husteko prozedura) eta D.3.q (Suteen aurkako babesari buruzko araudia).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskaritza-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresak ebazpen honen xede den fenol-erretxinak edo erresolak fabrikatzeko jardueraren inguruan titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, hark onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

– Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

– Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA enpresari, Lantarongo Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 31.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.